

ALEGIAKO

2024KO OTSALA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO

# ORRIE



2

3,5 MILIOIKO  
AURREKONTUA  
2024RAKO  
UN PRESUPUESTO  
DE 3,5  
MILLONES  
PARA EL 2024

4

UDALAK ESKU  
ARTEAN DITUEN  
PROIEKTUAK  
LOS PROYECTOS  
QUE TIENE  
ENTRE  
MANOS EL  
AYUNTAMIENTO

6

NEGUKO  
KULTUR  
EGITARAUA,  
MARTXOA  
AMAITU  
BITARTEAN  
PROGRAMACIÓN  
CULTURAL DE  
INVIERNO

7

SUTARRIK  
25 URTE  
SUTARRI  
CUMPLE  
25 AÑOS

8

UDALAREN  
TELEGRAM  
KANALA  
EL AYUNTAMIENTO  
HA ABIERTO  
UN CANAL DE  
TELEGRAM



HERRIAREN  
BEHARREI  
ERANTZUTEKO  
ERRONKA  
EL RETO DE AFRONTAR LAS  
NECESIDADES DEL MUNICIPIO

# 2

3,5 MILIOIKO  
AURREKONTUA  
2024RAKO

UN  
PRESUPUESTO  
DE 3,5  
MILLONES PARA  
EL 2024

Udalak gorpuzkiak hiltobietatik ateratzeko prozesua amaitu berri du hilerrian. Lanek 49.397,04 euroko kostua izan dute eta orain eremuaren egokitzapena gauzatu beharko da. Udalak kontu handiz landu nahi izan du, gai delikatua delako familientzat.

El Ayuntamiento ha terminado el proceso de exhumación de los restos mortales de las tumbas del cementerio. Los trabajos han tenido un coste de 49.397,04 euros y se ha querido desarrollar el proceso con delicadeza, ya que es un tema sensible para las familias.



# HIRU MILIOI ETA ERDIKO AURREKONTUA 2024RAKO

**AURREKO EKITALDIKOA BAINO MILIOI BAT GEHIAGOKO AURREKONTUA ONARTU ZUEN ALEGIAKO UDALAK IRAGAN ABENDUAREN 21 EKO OSOKO BILKURAN**

Alegiako Udalak 3.569.814 euroko aurrekontua izango du 2024 ekitaldirako. Iragan abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak aurtengo aurrekontu hori. Aurrera Alegiako bost zinegotzien aldeko botoa izan zuen proposamenak eta EH Bilduko hiru zinegotzi abstenitu egin ziren.

Erronka handiak ditu Alegiak eta horiei heldu ahal izateko diseinatu dira hasi dugun urteari begirako diru kontuak. Proposatu eta aurkeztu den Udal aurrekontuaz gain, Udalak hainbat diru laguntza eskaera eginak ditu eta horien ebazpenak argitaratu zain dago, aipatu erronka horiei aurre egiteko azkenean zenbateko diru kopuru zehatza izango duen jakiteko.

Aurrekontuak jasotzen dituen proiektu nagusienetako hainbatek hirigintzarekin dute zerikusia eta ALEGIAKO ORRIEren ale honetan zehar

modu xehean kontsultatu ahal izango da horiei buruzko informazioa.

Horrez gain, gazteria eta kultura sailek ere sendotuta ikusiko dute alor horietara bideraturiko diru kopurua. Gazteriaren alorrean hirukoiztu egin da orain arte bideratzen zen zenbatekoa. 66.000 euro izango ditu eskura sail horrek eta Udalaren konpromisoa da gazteekiko eskaintza indartzea eta biziberritzea. Zentzu horretan, 6 eta 18 urte bitarteko haurren eta nerabeen parte hartzea sustatzeko zerbitzua jarriko da martxan. Azken urteetan herriak izan duen gabeziatiko bat izan da alor hau udal gobernu berriaren aburuz eta haur eta nerabeek, herritik ateratzeko beharrik gabe, merezi duten neurriko aisialdi eskaintza izatea da erronka.

Aisialdia aipatuta, kulturari ere hauspotu bat eman nahi zaio. Herriko kultur eragileei baliabide gehiago

eskaintzea izango da aurrekontuak ahalbidetuko duen puntuetako bat eta zentzu horretan, aurtengoa urte berezia izango da Sutarri dantza taldearentzat, 25. urteurrena beteko duelako 2024an eta urtean zehar egingo dituen ekimen ezberdinetan Udalaren laguntza izango duelako.

Bide beretik, urtaro ezberdinetan antolatzen diren kultur egitarauak indartzea ere bada jomugetako bat. Herritarrei eskaintza oparoa egiten zaienean erantzuten dutela erakutsi dute eta eskaintza horiek sendotzen jarraitu nahi da.

Aipatu puntuez gain, herri bideen egoera ere hobetuko da. Esate baterako, Galarreta baserrira doan bidearen egoera hobetzeko 80.000 euro bideratuta daude iaztik eta horietatik 35.000 euro diru laguntza bidez jaso dira.

Udalak esku artean izan duen eta amaitu berri duen beste egitasmo bat hilerriko lanketarena da. Epeengatik lurpetik atera behar diren gorpuzkien gai delikatua landu da eta Udalak ahalik eta leuntasun handienarekin eraman nahi izan du. Inbertsioetan aurreikusitako egitasmo bat zen eta 49.397,04€ko kostua izan du. Behin gauzatuta,

eremuaren egokitzapena nola egin aztertzea izango da Udalaren hurrengo erronka.

### Gastuak eta sarrerak

Aipatu ditugun eta hurrengo orrialdeetan gehiago sakonduko diren proiektuez gain, Udalak azpiko taulan agertzen diren gastuak eta sarrerak aurreikusten ditu 2024rako.

## UN PRESUPUESTO DE 3,5 MILLONES PARA EL 2024

El Ayuntamiento de Alegia aprobó en sesión plenaria del pasado 21 de diciembre el presupuesto municipal para el ejercicio 2024. Las cuentas fueron aprobadas con cinco votos favorables de Aurrera Alegia y tres abstenciones de EH Bildu. El montante total asciende a 3.569.814 euros y se emplearán para afrontar los retos que tiene Alegia.

Algunos de los proyectos relacionados con el área de urbanismo que se desarrollarán vienen detallados en las siguientes páginas. El Ayuntamiento también reforzará las secciones de juventud y cultura, triplicando la cuantía destinada para la primera de ellas, con un total de 66.000 euros. Se pondrá en marcha un servicio para fomentar la participación de niños, niñas y adolescentes de entre 6 y 18 años, para que puedan disfrutar del ocio sin tener que salir de Alegia.

Hace unas semanas se terminó con el proceso de exhumación de las tumbas subterráneas. Ha sido una tarea que se ha desarrollado con delicadeza, teniendo en cuenta que era un tema muy sensible. Era una de las iniciativas previstas en las inversiones y una vez que se ha realizado, el siguiente paso será analizar cómo realizar la adaptación del entorno.

En las tablas de esta página se pueden consultar los gastos y las entradas previstas para el ejercicio 2024.

## ALEGIAKO UDAL AURREKONTUA PRESUPUESTO MUNICIPAL DE ALEGIA 2024

### GASTUAK - 2024 - GASTOS

Eragiketa arruntak Operaciones corrientes	
Pertsonal gastuak Gastos de personal	777.324,41€
Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan Gastos en bienes corrientes y servicios	970.170,01€
Finantza gastuak Gastos financieros	0,00€
Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	407.820,00€
Kreditu globala eta bestelako ustekabeak Crédito global y otros imprevistos	90.000,00€
Kapital eragiketak Operaciones de capital	
Inbertsio errealak Inversión real	1.344.500,00€
Kapital transferentziak Transferencias de capital	0,00€
Finantza aktiboak Finanzas activas	0,00€
Finantza pasiboak Finanzas pasivas	0,00€
Guztira - Total	3.569.814,42€

### SARRERAK - 2024 - ENTRADAS

Eragiketa arruntak Operaciones corrientes	
Zuzeneko zergak Impuestos directos	513.600,00€
Zeharkako zergak Impuestos indirectos	20.000,00€
Tasak eta bestelako zergak Tasas y otros impuestos	269.600,00€
Transferentzia arruntak Transferencias corrientes	1.752.477,42€
Ondare sarrerak Ingresos de patrimonio	37.900,00€
Kapital eragiketak Operaciones de capital	
Inbertsio errealak besterenganzetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk Otros ingresos provenientes de transmitir inversiones reales y derivados de actividades de urbanismo	560.641,81€
Kapital transferentziak Transferencias de capital	415.595,19€
Finantza aktiboak Finanzas activas	0,00€
Finantza pasiboak Finanzas pasivas	0,00€
Guztira - Total	3.569.814,42€

# UDALAK ESKU ARTEAN DITUEN PROIEKTUAK

2024KO AURREKONTUAREN ZERTZELADA BATZUK AIPATU DIRA AURREKO ORRIALDEETAN. SEGIDAN, UDALA LANTZEN ARI DEN PROIEKTU EZBERDINEN INGURUKO XEHETASUNAK KONTSULTATU DAITEZKE.



## Larraitz ekialde

Auzoaren eraberritzearen inguruko lanketa teknikoa egin, herritarrei lanketa horren inguruko ekarpenak

egiteko tarte eman eta berauek kontuan hartu ostean, hiru proposamen aurkeztu zitzaizkien herritarrei. 2022ko azaroan egindako herri galdeketa

modu nabarmenean atera zen irabazle, nolabait azaltze aldera, aisialdi eremuak eta aparkalekuak modurik orekatuenean jasotzen zituen proposamena.

Egitasmo horretara 1,5 milioi euro bideratu dira Udalean ordezkari duden Aurrera Alegia eta EH Bildu alderdien adostasunarekin egindako kreditu aldaketa bati esker eta horrez gain, ekitaldi honetako aurrekontuan beste 400.000 euro ere bideratu dira.

Behin betiko proiektua idatzita dago eta Udalez gairik erakunde onespenera ere badu. Obren lizitazio prozesua martxan jartzea izango da hurrengo pausoa eta behin lanak esleituta, gauzatze prozesua jarriko litzateke abian. Aurreikuspenen arabera, lanak hasten direnetik urtebeteko epean amaituta egotea da helburua.



## Osasun zentroa

Herriarentzako estrategikoa den beste proiektuetako bat da osasun zentroaren zaharberitzea. lazko udan, Udalak instalakuntza horien eraberritze eta egokitzapenerako egin zuten diru laguntza eskaera bati 246.000 euroko laguntzarekin erantzun zion osasun sailak eta hortik 300.000 euro osatu bitartekoa, Udalak jarriko du bere baliabideetatik.

Aurten lehen urratsak eman ahal izango dira. Hau da, proiektuaren erredakzio prozesuari ekingo zaio eta horretara

bideratuko dira baliabideak. Horrekin batera, lanek irauten duten bitartean, osasun zentroan eskaintzen diren zerbitzuak herriko beste zein gunetan eskainiko diren zehaztu beharko da



eta hori lotzen joatea ere izango da lanen lehen fase horretako beste eginkizunetako bat.

### Kiroldegiko aldagelak

Inaxio Begiristain Kultur eta Kirol Etxeko aldagelak ere eraberrituko dira. Egungo beharretarako zaharkituta geratutako instalakuntzak dira eta Udalak ziurtatuta ditu Gipuzkoako Foru Aldunditik jasoko dituen 133.000 euro.

Irisgarritasuna eta segurtasuna berriztatzea izango da aldagela berrien helburuetako bat eta horrekin batera, genero ikuspegia ere kontuan hartuko da proiektuan. Aldi berean, herritarrei kirol instalakuntza duin batzuk eskaintzea ere bada jomuga, biztanleria ariketa fisikoa egitera bultzatzeko eta populazio inaktiboaren murrizteko. Lanak azaroa amaitu aurretik gauzatuko dira.



### Haurreskola estalkia

Haurreskolako estalkiaren inguruan, iaz egindako kreditu aldaketa bati esker 35.000 euro bideratu ziren lanketa horretarako eta 2024ko aurrekontuan beste 55.000 euro gorde dira.

Oso eremu estankoa da haurreskola kokatzen dena eta aire libreko jarduerak garatu ahal izateko ezinbestekoa da estalkia jartzea, gutxienez baldintza batzuk izateko.



### Eraginkortasun energetikoa

Udalak esku artean duen beste erronketako bat da eraginkortasun energetikoarena. Herriko argiteria publikoan hainbat lan egin dira LED teknologiako lanparak instalatzeko eta datozen hilabeteetan Bazurkako eremuan egingo dira lan horiek, 30.000 euro bideratuz.

## LOS PROYECTOS QUE TIENE ENTRE MANOS EL AYUNTAMIENTO

Estos son los proyectos que está desarrollando actualmente el Ayuntamiento:

### Larraitz ekialde

En noviembre de 2022 los y las vecinas eligieron la propuesta más equilibrada en cuanto a aparcamientos y espacios de ocio. Se han derivado a este proyecto 1,5 millones de euros mediante un cambio de crédito acordado por Aurrera Alegia y EH Bildu y en este ejercicio se contemplan 400.000 euros. El siguiente paso será el de licitar los trabajos. Una vez que empiecen, se prevé que en el plazo de un año estén ejecutados.

### Centro de salud

Es un proyecto estratégico para Alegia. El pasado verano el departamento de salud otorgó una subvención de 246.000 euros a una solicitud realizada por el Ayuntamiento y la cantidad que va hasta completar 300.000 euros, correrá a cargo del consistorio. Este año se darán los primeros pasos. Es decir, se comenzará con la redacción del proyecto y habrá que analizar dónde se prestará el servicio mientras duren los trabajos.

### Vestuarios del polideportivo

Esta instalación requiere una remodelación urgente y el Ayuntamiento cuenta con 133.000 euros de la Diputación para ello. El objetivo de la remodelación será poder contar con unos vestuarios que cumplan las medidas de accesibilidad y seguridad vigentes. También se tendrá en cuenta la perspectiva del género.

### Cubierta de la haurreskola

Gracias a un cambio de crédito del 2023, se han derivado 35.000 euros para esos trabajos y el presupuesto del 2024 cuenta con otros 55.000. Será una intervención esencial para poder desarrollar actividades al aire libre.

### Eficiencia energética

Es otro de los retos de este Ayuntamiento. Se han realizado diversos trabajos en el alumbrado público para instalar lámparas con tecnología LED y durante los próximos meses se desarrollarán Bazurka, destinando a los mismos 30.000 euros.

# NEGUKO KULTUR EGITARAUA, MARTXOA AMAITU BITARTEAN

JON PLAZAOLAREN 'TU-TUM PLATZ' BAKARRIZKETA, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN BUELTAKOAK ETA BULLYINGAREN INGURUKO HITZALDI BAT, DATOZENEN ARTEAN

## PROGRAMACIÓN CULTURAL DE INVIERNO

La programación cultural de invierno sigue su curso. Ya se han realizado algunos eventos y lo próximo será el monólogo 'Tum-Tum Platz!' de Jon Plazaola, el 1 de marzo, viernes, a partir de las 22:00 en el cine. Las entradas para ese evento están a la venta en la casa de la cultura a un precio de 8 euros.

El 8 de marzo se celebrará el Día Internacional de la Mujer. Se proyectará el documental 'Ainarak' protagonizada por Anne Etchegoyen en el cine y tras la proyección habrá un coloquio con la misma Etchegoyen. Se puede consultar la programación completa en la web municipal o en Alegia APP.



### Korrika 23

Del 14 al 24 de marzo se celebrará la 23 edición de Korrika. La carrera en favor del euskara pasará por Alegia el 23 de marzo, sábado, hacia las 13:00. Llegará desde Ikaztegieta y tras pasar por la calle San Juan e ir hacia el barrio Larraitz, en Errota tomará la variante para seguir hacia Tolosa. La comisión de Korrika de Alegia ofrecerá pronto detalles sobre la programación para ese día.

Aurrera darrai neguko kultur egitarauak. Martxoaren 1ean, ostirala, Jon Plazaolaren 'Tu-Tum Platz' bakarrizketa eskainiko da 22:00etan zinean. Emanaldi horretarako sarrerak kultur etxean erosi daitezke jada 8 euroko prezioan.

Bestetik, martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta Anne Etchegoyen protagonista duen 'Ainarak' dokumentala eskainiko da zinean. Emanaldiaren ostean solasaldia izango da Etchegoyenekin berarekin.

Azpien dituzue egitarauko ekitaldi guztiak.



### Martxoak 1, ostirala

'Tu Tum Platz' bakarrizketa. Jon Plazaola. 22:00etan zinean. Sarrerak salgai kultur etxean 8 euroan.

### Martxoak 8, ostirala

Emakumeen Nazioarteko Eguna. 'Ainarak' dokumentalaren proiektzioa eta ondoren solasaldia Anne Etchegoyen protagonistarekin.

### Martxoak 12, asteartea

Ahoz-aho jaialdia: Maider Galarza eta Carolina Rueda (Kolonbia). 17:00etan liburutegian.

### Martxoak 13, asteazkena

Hitzaldia: 'Bullying egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu'. Ortzadar elkartearen eskutik. 18:30ean kultur etxean.



### Martxoak 14, osteguna

Irakurle taldea: 'Esnearen kolorekoa'. Nell Leyshon. 18:00etan liburutegian.

### Martxoak 19, asteartea

Ahoz-aho jaialdia: Dorleta Kortazar eta Celine Rainoird (Frantzia). 17:00 Liburutegian.

### Martxoak 22, ostirala

Sutarri dantza taldearen emanaldia. Kultur etxean.

### Korrika 23

Martxoaren 14tik 24ra Korrika 23 egingo da. Irundik abiatu eta Baionan amaituko da 2700 kilometro baino gehiago egin ostean. Alegiatik martxoaren 23an, larunbata, pasako da. 13:00ak inguruan helduko da Ikaztegietatik eta San Juan kaletik Larraitz auzo aldera egingo du, Errotan saihebideta hartu eta Tolosa aldera jarraitzeko. Alegiako Korrika batzordea martxan da eta laster emango da egun horren bueltan antolatuko den egitarauaren berri.



SUTARRIK  
25 URTE  
SUTARRI  
CUMPLE  
25 AÑOS

# 25 URTE DANTZAN

**I 999AN SORTU ETA URTEAK PASA AHALA HERRIAN  
GERO ETA ERROTUAGOA DAGOEN SUTARRI DANTZA  
TALDEAK MODU BEREZIAN OSPATUKO DU HAIN  
URTEMUGA SEINALATUA**

2024a urte berezia izango da Sutarri dantza taldearentzat 25 urte beteko dituelako. Denboran atzera egin eta 1997ra joan behar dugu gerora Sutarri bihurtuko zenaren lehen txinparta topatzeko. Urte hartan dantza ikastaroak eskaintzen hasi zen orduan kultur etxea kudeatzen zuen enpresa eta bi urteren buruan, kurtsoa hasi aurretik, ikastaro haietan parte hartzen zuten haurren eta gaztetxoaren gurasoek ikasturtea antolatzeko bilera bat egin zuten, dantza taldea sortu eta berau kudeatzeko batzorde bat eratzeko erabakia hartuz.

Tolosako Udaberri dantza taldearen laguntzarekin egitasmoari forma ematen hasi ziren. Lehen ekintzak egitea zen helburua eta horretarako beharrezkoa zen materiala eta arropak biltzen eta osatzen joan ziren, herri mailako ekitaldietan parte hartuz. Orduko Udalarren laguntza ere garrantzitsua izan zen, jantziak ordainduz.

Beste beharretako bat materialarena zen. Sutarriren aurretik izan zen Alegian Tomas Iraolak zuzenduriko beste dantza talde bat eta haiek erabilitako materiala Altzon aurkitu eta berreskuratzea ahal izan zuten Sutarrikoek. Gaur egun oraindik baliagarri eta erabilgarri zaie material hori.

## Bilakaera

25 urte hauetan dantza taldeak izan duen bilakaera behetik gorako bide bat

bezala definitu daiteke. Lehen urteetako lanaren ostean, 2004an Udaberri dantza taldeko monitoreek euren jardunari amaiera ematea erabaki zuten eta dantza taldearen entsegu lokala ere kultur etxetik eskolara lekualdatu zen. Villabonako Oinkari taldera jo zuten Sutarrikoek irakasle bila eta bertako bi kideren laguntza jaso zuten.

Denbora tarte bat igarota, berriz ere kultur etxera itzuli zen dantza taldea eta urteek aurrera egin ahala, irakasle taldera batzen joan ziren ordura bitartean Sutarriko ikasle izandako hainbat kide. Hori ere balioan jarri beharreko zerbait da. Txikitatik bertan ikasitakoa belaunaldi berriei erakusteko hautua egin duten dantzarien jarrera txalotzekoa da.

Izan ere, duela 25 urte hogeitau haur eta gazterekin hasi zen taldeak, ehundik gora parte hartzaile ditu gaur egun. Eta ez dira haurrak soilik. Adin ezberdinetako herritarren taldeak ditu Sutarririk eta hori ikusteko aukera izaten da urtean zehar egiten dituzten emanaldietan.

Emanaldiak aipatuta, alor horretan ere berezia izango da 2024a. 25. urtemuga modu berezian ospatu nahi da eta urtean zehar hainbat data seinalatu izango dira. Lehena martxoaren 22an kultur etxean egingo den emanaldi berezi bat izango da. Hortik aurrerakoak, datak hurbildu ahala zehaztuko dira. Zorionak eta bejondeizuela!!

## SUTARRI CUMPLE 25 AÑOS

El 2024 será un año muy especial para Sutarri Dantza Taldea, ya que celebrarán su 25 aniversario. Hay que trasladarse al año 1997 para encontrar la mecha que a la postre terminó convirtiéndose en Sutarri. La empresa que en aquel entonces gestionaba la casa de la cultura comenzó a ofrecer cursos de danza y dos años después, los padres y las madres de los niños y niñas participantes, decidieron crear una comisión para fundar y gestionar la agrupación de danza.

En los primeros años recibieron la ayuda de miembros de Udaberri Dantza Taldea de Tolosa y lo primero fue obtener la ropa y el material para poder ofrecer las actuaciones en los distintos eventos que se realizaban en Alegia.


Junto al esfuerzo de las personas que participaban en Sutarri, el apoyo del Ayuntamiento también fue importante para poder afrontar entre otros gastos, el coste de la ropa, el cual era uno de los mayores gastos.

En cuanto al material, recuperaron el que utilizaba la agrupación de danza de Alegia que estuvo dirigido por Tomas Iraola. Lo encontraron en Altzó y pudieron utilizarlo. Es más, hoy en día todavía se utiliza.

De cara al 25 aniversario, están diseñando las celebraciones. Habrá actuaciones especiales, Dantzari Eguna, exposiciones... El primer evento será la actuación del 22 de marzo en la casa de la cultura y tras ello, irán ofreciendo detalles a medida que se acerquen los eventos. Zorionak!!

8

UDALAREN  
TELEGRAM  
KANALA  
EL  
AYUNTAMIENTO  
HA ABIERTO  
UN CANAL DE  
TELEGRAM



# ALEGIAKO UDALAK KANAL BAT ZABALDU DU TELEGRAM APLIKAZIOAN

HERRITARRENGANA IRISTEKO MODU BERRI BAT IZANGO DA ETA MEZUAK  
HIZKUNTZA EZBERDINETARA ITZULI AHAL IZANGO DITU HARTZAILEAK

## EL AYUNTAMIENTO HA ABIERTO UN CANAL DE TELEGRAM

Telegram es una aplicación de mensajería instantánea, similar a Whatsapp. Estas aplicaciones ofrecen la opción de abrir canales para que las personas que sigan a ese canal puedan recibir diversa información. El Ayuntamiento de Alegia ha abierto un canal en Telegram con el objetivo de ofrecer a la ciudadanía otro canal más de comunicación. Está disponible tanto para dispositivos Android como para IOS y las personas que quieran recibir información, sólo tienen que seguir la cuenta del Ayuntamiento. En los códigos QR de esta página se puede entrar en el canal.

Unirse al canal no tiene ningún peligro para los y las usuarios en cuanto a su privacidad se refiere. Nadie podrá ver si son miembros del canal y tampoco estarán a la vista su número de teléfono ni otros datos personales. Estos canales no funcionan como un chat. Únicamente sirven para recibir información o notificaciones. Otra de las ventajas es que dispone de opción de traducir el contenido que se recibe, por lo que ello puede facilitar la comunicación entre una parte de la población de Alegia y el Ayuntamiento.

Se anima a los vecinos y vecinas a descargar la aplicación y unirse al canal.

Alegiako Udalak ahalik eta herritar gehienengana iristeko bidean urratsak ematen jarraitzen du. Zentzu horretan, hemendik aurrera Telegram aplikazio bidezko kanal bat ere eskura izango dute herritarrek.

Alegiako Udalak ahalik eta herritar gehienengana iristeko bidean urratsak ematen jarraitzen du. Zentzu horretan, hemendik aurrera Telegram aplikazio bidezko kanal bat ere eskura izango dute herritarrek.

Bat-bateko mezularitza zerbitzua eskaintzen duen mugikorretarako aplikazio bat da Telegram, Whatsapparen antzekoa. Norbanakoen zein taldeen arteko elkarriketak izateko aukera eskaintzen dute aplikazio horiek, irudiak zein bestelako dokumentuak elkarbanatzeko aukera eskaintzearekin batera.

Horrez gain, aipatu kanalak sortzeko aukera ere badute. Kanal horiek informazio ezberdinak elkarbanatzeko edo zabaltzeko bideak izaten dira. Udalen kasuan, zabaltzen den kanal horri jarraitzeko aukera izango dute hala nahi duten herritarrek eta Udalaren zerikusia duten berri, deialdi edo dena delakoan berri jaso ahal

izango dute beraien mugikorrean. Zentzu horretan, kanal horrekin bat egin nahi duten herritarrek egin beharreko lehen urratsa Telegram aplikazioa mugikorretan instalatzea da. Orrialde honetako QR kodeen bidez Android edo IOS bertsioa eskuratu dezakezue eta behin instalatuta, 'Alegiako Udala' kanalarekin bat egin, hirugarren QR kodearen bidez.

Horrelako taldeetan sartzeko mesfidantza sortu izan du herritarrengan. Datu pertsonalak bistan geratuko ote direnarena izaten da kezka nagusia, baina alde horretatik lasai egon daitezke kanalarekin bat egiten duten herritarrek. Erabiltzaileen datuak ez dira edonork ikusteko moduan egoten. Hori bai, jasotzen diren mezuak hainbat hizkuntzetara itzultzeko aukera ematen du eta horrek herriko biztanleriaren zati batekin Udalak izan dezakeen komunikazioa erraztu dezake.

Udalak herritarrek kanalarekin bat egitera animatu nahi ditu, bi zentzutako komunikazioa arintzea ahalbidetuko duen tresna berri bat delako eta bat-batekotasuna ere irabaziko delako, azken orduko jakinarazpenak jasotzea ahalbidetuz, besteren artean.



Android



IOS



Kanalarekin  
bat egin